
28
FANTASIAZKO ETA
BELDURREZKO
ZINEMAREN ASTEA
SEMANA DE CINE
FANTÁSTICO Y DE TERROR
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
URRIA 28 OCTUBRE
AZAROA 3 NOVIEMBRE
2017
WWW.SANSEBASTIANHORRORFESTIVAL.EUS
Antolatzaileak / Organizan
donostia kultura
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Babesleak / Patrocinan
Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
ORAIN GIPUZKOA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE
icaa
Laguntzaileak / Colaboran
EUSKARAREN HIRIA DONOSTIA
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Turismoa
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Gazteria
SUPER AMARA
SYFY
gugan
EU JAPAN fest
JAPANFOUNDATION 国際交流基金
fnac
TODO PASA EN FNAC | FNAC.ES
kutxa kultur
kutxa FUNDAZIOA
TABAKALERA
EL DIARIO VASCO
gaztea
LOS40 SAN SEBASTIÁN 97.2FM
ytantos argazkia / fotografía / Photo: Pedro Usabiaga

# ANTZOKI ZAHARRA
# TEATRO PRINCIPAL

Antzoki Zaharreko film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira gaztelerazko azpitituluekin, **LES AFFAMÉS** salbu. Hau euskarazko azpitituluekin emango da. Bestetik **OKER** euskaraz bikoizturik emango da.

Todas las películas del Teatro Principal se proyectarán en versión original subtitulada en castellano excepto **LES AFFAMÉS**, que se subtitulará en euskera, y **OKER**, que se exhibirá doblada al euskera.

## 28
**LARUNBATA /** SÁBADO

**19:30** **INAUGURAZIOA /** INAUGURACIÓN

### ERREMENTARI
(2017). Paul Urkijo Alijo
Espainia-Frantzia / España-Francia
95 min



10 urte igaro dira 1833ko Lehen Karlistaldia amaitu zenetik. Arabako herrixka batean, gobernuko komisario bat, Alfredo izenekoa, gertakari bat ikertzen ari da. Ikerketa horrek zorigaiztoko errementeria batera eramango du, baso batean barrena, han bizi baita Patxi izeneko errementari arriskutsu eta bakartia. Inguru horretako herritarren ahotik hari buruzko istorio ilunak entzun ohi dira, lapurretekin, hilketekin eta deabruarekin egindako itunekin lotuak. Hala, ustekabean, Usue izeneko neskatila umezurtz batek errementeria misteriotsuan sartzea lortuko du, eta horrela aterako da argitara Patxi Errementariaren inguruan ezkutatzen den egia izugarria.

Han pasado 10 años desde la Primera Guerra Carlista de 1833. En un pequeño pueblo de Álava, un comisario del gobierno llamado Alfredo investiga un suceso que le lleva hasta una siniestra herrería en lo profundo del bosque, donde vive un peligroso y solitario herrero llamado Patxi. Los aldeanos de la zona cuentan oscuras historias sobre él relacionadas con robos, asesinatos y pactos demoníacos. Hasta que por casualidad una niña huérfana llamada Usue consigue colarse en la misteriosa herrería, destapando la terrible verdad que se esconde tras Patxi el Herrero.

**22:15**

### Cautionary Tales
(2016). Us (Chris Barrett & Luke Taylor). Erresuma Batua / Reino Unido. 8 min

Ezbehar arraro batean gazte batek itxuragabetuta utzi zuen Aaronen aurpegia, bizitza osoan gainetik ezin kendurik. Aaron, bakartuta eta ahul, ustekabean sortzen den marjinatu talde baten adiskidetasunean eta elkar aditzean dabil kontsolamendu bila.

De pequeño un extraño incidente dejó a Aaron con una cara desfigurada que le ha perseguido toda su vida. Aislado y vulnerable, busca consuelo en la amistad y la comprensión de un grupo inesperado de marginados.

### MOM AND DAD
(2017). Brian Taylor
AEB / EEUU. 83 min



Brent (Nicholas Cage) eta Kendall (Selma Blair) krisian den senar-emazte bat dira. Bi seme-alaba dituzte: Carly nerabera, mugikorrari erantsita beti, eta bere anaia txikia, Joshua. Beste edozein egun ematen du gaurkoak haien bizitzan. Ez da horrela, ordea. Histeria kolektiboko erasoaldi batek eragin egingo du guraso guztiak haien seme-alabak hiltzeko irrikan egotea. Eskolan izandako sarraski baten ondoren, etxera itzuli da Carly anaia babestera, baina amatxo eta aitatxo ere etxerako bidean dira. Komedia beltza eta aztoratua, **Crank**en (2006 eta 2009) bi emanaldien zuzendarietako baten lana.

Brent (Nicholas Cage) y Kendall (Selma Blair) son un matrimonio en crisis. Tienen dos hijos, la adolescente Carly, pegada a su teléfono móvil, y su hermano pequeño Joshua. Parece un día cualquiera en sus vidas. Pero no lo es. Un ataque de histeria colectiva provoca que a todos los padres y madres les entren unas ganas locas de matar a sus hijos. Tras un baño de sangre en el colegio Carly vuelve a casa para proteger a su hemano, pero mamá y papá también se dirigen hacia allí. Comedia negra y enloquecida dirigida por el corresponsable de las dos entregas de **Crank** (2006 y 2009).

00:30

## Un peu après minuit

(2017). Jean-Raymond Garcia, Anne-Marie Puga
Frantzia / Francia. 22 min

Suzanne lehen hezkuntzako irakasle gazte bat da, itsua. Itsuen komunitate batean interes handiaz ari da ikasten sorginei eskainitako artearen historia eta Satanen erotologia.

Suzanne es una joven profesora de primaria ciega. En una comunidad de personas invidentes estudia con sumo interés la historia del arte dedicado a las brujas y la erotología de Satán.

## HOUSE OF THE DISAPPEARED

(2017). Lim Dae-woong. Hego Korea / Corea del Sur. 100 min



Duela 25 urte Mi-Hee ohiko etxeko andre bat zen, haren senar Chul-Joong-ekin eta bien semearekin bizi zena. Gau batean senarra hil egingo dute eta desagertu egingo da semea. Mi-Hee bi krimenez akusatu eta espetxera bidaliko dute, non urte hauek guztiak igaro baitituen. Gaixorik, askatu berri dute eta etxera itzuli da, bere bizitza betiko aldarazi zuen ezbehar hura gertatu zen lekura. Alejandro Hidalgoren **La casa del fin de los tiempos** (2013) film venezuelarraren *remake* korearra.

Hace 25 años Mi-Hee era un ama de casa corriente casada con Chul-Joong, con quien vivía junto a su hijo. Una noche su marido es asesinado y su hijo desaparece. Ella es acusada de ambos crímenes y enviada a la cárcel, donde ha pasado todos estos años. Enferma, acaba de ser liberada y vuelve a la casa donde pasó todo aquello que cambió su vida para siempre. *Remake* coreano de la venezolana **La casa del fin de los tiempos** (2013), de Alejandro Hidalgo.

## DOWNRANGE

(2017). Ryuhei Kitamura
AEB / EEUU. 90 min



Sei ikasle autoz zeharkatzen ari dira herrialdea etxera bueltan doazela. Baina errepide bakartu baten erdian pneumatikoetako bat lehertuko zaie eta geldiarazi egin behar izango dute autoa. Autotik ateratzen direnean konturatzen dira ez dela istripu bat izan, tiro bat baizik. Eta erreakzionatzeko astirik ere ez dutela, bala gehiago iritsiko zaizkie. Frankotiratzaile batek infernu batean murgilduko ditu hurrengo orduetan. Autoa da haien aterpe bakarra. **The Midnight Meat Train** (2008) eta **No One Lives** (2012) filmeen zuzendariaren pelikula berria.

Seis estudiantes atraviesan el país en coche de vuelta a casa. Hasta que en mitad de una aislada carretera un neumático estalla y se ven obligados a parar. Cuando salen del coche se dan cuenta de que no ha sido un accidente, sino un disparo. Y antes de que puedan reaccionar comienzan a llegar más balas. Un francotirador convertirá las siguientes horas en un infierno. Su único refugio es el coche. Nueva película del director de **El vagón de la muerte** (2008) y **No One Lives** (2012).

# 29
**IGANDEA /** DOMINGO

12:00 — **HAURRENTZAKO ZINEMA /** CINE INFANTIL

## OKER

(*Oddball*, 2015). Stuart McDonald
Australia. 95 min



Pinguinoen kolonia txiki batek Australiako Middle Island uhartean du bizilekua. Garai batetik hona, animalia basati batzuek mehatxatzen dituzte, bereziki azeriek, eta etengabe erasotzen dituztenez, azken urteetan nabarmen jaitsi da pinguinoen populazioa. Swampy izeneko baserritar bitxi batek, bere bilobaren laguntzarekin, Oker beren txakurra entrenatzea erabakiko du, pinguinoak harrapakarietatik babestu ditzan eta, horrela, santutegi txiki hori salba dezan. Egiazko gertaera batean oinarritutako istorioa da hau.

En Middle Island, Australia, una pequeña colonia de pingüinos ha establecido su hogar. Sin embargo, se encuentran amenazados desde hace algún tiempo por diversos animales salvajes, especialmente zorros, que con sus continuos ataques han hecho que su población haya descendido de forma considerable en los últimos años. Un excéntrico granjero, Swampy, con la ayuda de su nieta, decide entrenar a su perro Oker para que proteja a los pingüinos de los depredadores, con el objeto de conseguir salvar este pequeño santuario. Historia basada en hechos reales.

## 17:00

## Health, Wealth & Happiness
(2017). Nic Alderton
Erresuma Batua / Reino Unido
11 min

Lapur batek beretzako moduko lagun bat aurkitu du, emakume misteriotsu bat, hiru desio eskaintzen dizkiona bere arimaren truke.

Un atracador encuentra su media naranja, una mujer misteriosa que le ofrece tres deseos a cambio de su alma.

## HOUNDS OF LOVE
(2016). Ben Young
Australia. 108 min



80ko urteen erdialdera, Australiako mendebaldean, Perth-eko aldirietako auzo batean neska gazte batzuk desagertu dira John eta Evelyn Whitek osatutako bikotearen eskutik. Vicki Maloney da haien biktima berria. Bahitu berri dute. Senar-emazteak duten harreman arraroa eta okerra egun batzuk behatzen jardun ondoren, Vicki konturatu egingo da haien artean gatazkaren bat sorraraztea izango dela bizirik irteteko duen itxaropen bakarra.

A mediados de los años 80 en un suburbio de Perth, al oeste de Australia, diversas jóvenes han desaparecido a manos de la pareja formada por John y Evelyn White. Vicki Maloney es su nueva víctima. Acaban de secuestrarla. Tras observar durante unos días la extraña y perversa relación que mantiene el matrimonio, Vicki se da cuenta de que su única esperanza para sobrevivir es intentar generar algún conflicto entre ellos.

## 19:30

## Birthday
(2017). Viavattene
Italia. 9 min

Gaua. Erizain bat noraezean dabil zaharren egoitza bateko saletatik. Bere soldataren osagarri gisa ezkutuan saltzen dizkie errezetadun botikak yonkiei eta lapurtu egiten die paziente ahulenei.

Noche. Una enfermera vaga por las salas de una residencia de ancianos. Complementa su sueldo vendiendo en secreto medicamentos con receta a drogadictos y robando a los pacientes más vulnerables.

## REVENGE
(2017). Coralie Fargeat
Frantzia / Francia. 108 min



Hiru gizon aberats urtero egiten duten ehiza-jokorako bildu dira basamortuaren erdian. Oraingo honetan, haietako batek bere maitalea ekarriko du. Gauzak, ordea, dramatikoki konplikatuko dira harentzat... Hiltzat emana eta ezerezaren erdian abandonatua, berpiztu egingo da emakume gaztea eta ehiza-jokoa mendeku gupidagabe bat izango da azkenean. Coralie Fargeat errealizadore frantsesaren opera prima, Matilda Lutz aktoresa italiarrak protagonizatua.

Tres hombres ricos se reúnen para su juego de caza anual en mitad del desierto. Esta vez uno de ellos viene acompañado por su amante. Las cosas se complican de una forma dramática para ella... Dada por muerta y abandonada en medio de la nada, la joven vuelve a la vida y el juego de caza se convierte en una venganza implacable. Ópera prima de la realizadora francesa Coralie Fargeat protagonizada por la actriz italiana Matilda Lutz.

## 22:30

## The Boogeys
(2017). Sanjay F. Sharma
Kanada / Canadá. 20 min

Etorkizuneko Lur batean, jauntxo estralurtarrez osatutako geto planetario bihurtuan, polizia izandako Dawkins dirulapurrak haur bat aurkitu du Boogey-ei saldua izateko zorian denean.

En una Tierra del futuro transformada en un gueto planetario dominado por caciques alienígenas, Dawkins, un policía convertido en carterista, encuentra a un niño que está a punto de ser vendido a los Boogeys.

## DAVE MADE A MAZE

(2017). Bill Watterson
AEB / EEUU. 81 min



Dave-k, bere ibilbidean zehar ezer esanguratsurik sortzea lortu ez duen artistak, asteburu batean gotorleku bat sortu du bere saloian kartoiekin, guraizeekin eta kolarekin. Kanpotik handiegia ez dirudien arren, ikaragarri zabala ematen du barrutik. Davek hiru egun daramatza bertan itxita, sortu duen labirintotik irteera bat aurkitu ezinik. Haren neska-lagunak eta lagun talde batek barrura sartzea erabakiko dute mutila erreskatatzera. Irudimen handiko filma, fantasiaz, umorez eta ustekabeez josia.

Dave, un artista que aún no ha conseguido crear nada significativo en su carrera, construye con cartones, tijeras y pegamento un fuerte en su salón durante un fin de semana. Aunque por fuera parece que no es demasidado grande, desde dentro parece inabarcable. Dave lleva atrapado allí tres días, incapaz de encontrar la salida del laberinto que ha creado. Su novia y un grupo de amigos deciden entrar para rescatarle. Imaginativa película llena de fantasía, humor y sorpresas.

## RESCATE EN OSIRIS

(*The Osiris Child: Science Fiction Volume One*, 2016)
Shane Abbess. Australia. 99 min



Gertatzeko zorian den krisi bat Osiris planetako biztanle guztien bizitza mehatxatzen ari denean, Sommerville tenienteak, kolonia kudeatzen duen eta berau akabatzekotan den Exor konpainiarentzat lanean ari denak, berehala ekin dio lanari egun horietan bertara bisitan etorri zaion alaba salbatzeko. Ihes egin berri den Lombrock presoarekin eta bidean jasotzen doan beste kide batzuekin batera, izaki izugarri batzuei egin behar izango diete aurre helburua lortzeko: neskatila salbatzea. Ekoizpen australiarra, Kellan Lutz, Daniel MacPherson, Rachel Griffiths eta Temuera Morrison protagonista dituena.

Cuando una inminente crisis amenaza con acabar con la vida de todos los residentes en el planeta Osiris, el teniente Sommerville, que trabaja para Exor, la compañía que gestiona la colonia y que está a punto de acabar con ella, emprende una carrera contrarreloj para salvar a su hija, que está esos días de visita. Junto al presidiario recién fugado Lombrock y a otros socios que van recogiendo por el camino deberán enfrentrarse a unas criaturas monstruosas para conseguir su objetivo: salvar a la niña. Producción australiana protagonizada por Kellan Lutz, Daniel MacPherson, Rachel Griffiths y Temuera Morrison.

# 30
**ASTELEHENA /** LUNES

**17:00** **ANIMAZIOKO FILM LABURREN MARATOIA**
MARATÓN CORTOS ANIMACIÓN (61 min)

## Black

(2016). Tomasz Popakul
Polonia-Japonia / Polonia-Japón
14 min

Espazioko estazio orbital batean harrapatuta dauden bi astronautaren istorioa da hau, Lurrean ustekabean hasi den gerra nuklear baten ondorioz. Kontaktua galdu dute planetarekin eta saio guztiek huts egin dute beren basearekin edo beste edonorekin komunikatzeko.

Esta es la historia de dos astronautas atrapados en una estación espacial orbital debido a una guerra nuclear que ha estallado inesperadamente en la Tierra. Han perdido contacto con el planeta y fracasan todos los intentos de comunicarse con su base o con cualquier otra persona.

## Call Of Cuteness

(2017). Brenda Lien
Alemania. 4 min

Interneteko katuen bideo bildumarik osatuena, onik eta osorik gaudela, ikusten ari garen bitartean, ezkutuan den guztia atzera datorkigu berriro amesgaizto kontsumista honetan.

Mientras, sanos y salvos, observamos la mayor recopilación de vídeos de gatos de Internet, todo lo que se mantiene oculto vuelve a nosotros en esta pesadilla consumista.

## Catherine
(2016). Britt Raes
Belgika / Bélgica. 12 min

Catherinek izugarri maite ditu maskotak! Baina batik bat, bere katua du maiteen. Hazten doan heinean, beste pertsona batzuekin konektatzeko gai ez dela ikusten du bere burua. Bere katua da bere bizitza, eta gutxika, atso zahar ero bat bilakatuko da, katuez inguratuta…

¡A Catherine le encantan las mascotas! Pero sobre todo le encanta su gato. A medida que va creciendo, se ve incapaz de conectar con otras personas. Su gato es su vida y, poco a poco, se convierte en una anciana loca rodeada de gatos…

## Contact
(2017). Alessandro Novelli
Espainia / España. 8 min

Emakume baten kontzientzia piztu egingo da bere barnean, errealitatearen eta fantasiaren artean egiten duen bidaia batean, inguratzen duen mundua islatzen du batean.

La conciencia de una mujer se despierta a través de un viaje interior, entre la realidad y la fantasía, que refleja el mundo que la rodea.

## Cucarachas
(2017). Marc Riba, Anna Solanas
Espainia / España. 2 min

Gizon bat, emakume bat, eraikin bat eta labezomorro izurri bat…

Un hombre, una mujer, un edificio y una plaga de cucarachas…

## Eläintarha / The Zoo
(2017). Malakias
Finlandia. 4 min

*No More Presidents*. **Forbidden Games** (2015) edo **Voodoo Rites** (2016) bezalako film laburrekin Astean ohiko bihurtu den Malakias finlandiarraren lan berria.

*No More Presidents*. Nuevo trabajo del finlandés Malakias, habitual de la Semana con cortos como **Forbidden Games** (2015) o **Voodoo Rites** (2016).

## Nachtstück / Nocturne
(2016). Anne Breymann
Alemania. 5 min

Gauez, basoko izakiak bildu egiten dira apustuan aritzeko, beren izatearen alderik ezkutuena jokoan jarriz.

Por la noche, las criaturas del bosque se reúnen para apostar, poniendo en juego lo más íntimo de su ser.

## Résistance
(2016). Alex Chauvet, Anna Le Danois, Quentin Foulon, Juliette Jean, Julie Narat, Fabien Glasse
Frantzia / Francia. 7 min

Gonbidatuak hartu ohi ditugun moduari buruz.

Sobre cómo recibimos a nuestros invitados.

## Super Film
(2016). Piotr Kabat
Polonia. 5 min

Animazio film labur bat, masa kultura garaikidean oinarritua. XX. mendearen bigarren erdian Iparramerikan sortutako pelikulei, telesailei eta marrazki bizidunei egiten zaien omenaldi bat da.

Un cortometraje animado basado en la cultura de masas contemporánea. Es un homenaje a las películas, series de televisión y dibujos animados norteamericanos creados en la segunda mitad del siglo XX.

## Petul
(2017). Charles Cheval
Frantzia / Francia. 16 min

Ahalmen handiko karraskari baten aparteko bidaia gizakien familia baten mundu beldurgarrian barrena.

El extraordinario viaje de un poderoso roedor por el terrible mundo de una familia de humanos.

# MUTAFUKAZ

(2017). Shojiro Nishimi, Guillaume "Run" Renard. Frantzia-Japonia / Francia-Japón. 90 min



Run-ek (Guillaume Renard) sortutako *comic book*en sail arrakastatsua pantaila handira eraman dute egileak berak eta Shojiro Nishimi zuzendari japoniarrak. Angelino Dark Meat City hirian bizi da. Ahal duen moduan bizirauten du pizza-banatzaile gisa lanean. Neska misteriotsu baten ikuspenak eragindako moto-istripu baten ondoren, migraina handiak izango ditu, baita haluzinazio bitxiak ere. Burua galtzen hasi ote da edo estralurtarren inbasio bat sortzen hasi ote?

Adaptación a la pantalla grande de la exitosa serie de *comic books* creada por Run (Guillaume Renard) a cargo del propio autor junto al director japonés Shojiro Nishimi. Angelino vive en la ciudad de Dark Meat City. Sobrevive como puede trabajando como repartidor de pizzas. Tras un accidente de moto causado por la visión de una misteriosa joven, comienza a tener fuertes migrañas acompañadas de extrañas alucinaciones. ¿Está perdiendo la cabeza o se está produciendo una invasión alienígena?

**22:00**

# When Demons Die

(2016). Daniel Rübesam
Alemania. 19 min

Joshua, 8 urteko mutikoa, ez da inoiz irten etxetik, bakartutako bere landetxearen inguruan izaki arriskutsu batzuk bizi baitira. Baina bere aita era misteriotsu batean desagertzen denean, Joshuak behartuta ikusiko du bere burua kanpora irtetera.

Joshua, de 8 años, nunca ha salido de casa porque unas criaturas peligrosas viven fuera de su granja aislada. Pero cuando su padre desaparece misteriosamente, Joshua se ve obligado a hacerlo.

# BEFORE WE VANISH

(2017). Kiyoshi Kurosawa
Japonia / Japón. 129 min



Egun batzuk desagertuta egon ondoren, Shinji zeharo aldatuta itzuli da etxera. Alde egin zuenean, bere emazte Narumirekin zuen harremana krisialdi larri batean zen; orain, maitagarria eta adeitsua da Shinji bere emaztearekin eta bere pasealdietan topatzen dituen guztiekin. Aldi berean, bortizki hil dute familia bat hirian. Kazetari batek hilketa ikertzeari ekin dio. Giza arimaren ezkutuko zokoetan barrena sartzen den zientzia fikziozko fabula hau Japoniako zinemaren azken hamarkadetako zuzendari gailenetako baten lana dugu –berak zuzenduak dira **Journey to the Shore / Kishibe no tabi** (2014), **Creepy** (2016) edo **Le Secret de la chambre noire** (2016)–.

Después de estar unos días desaparecido, Shinji vuelve a casa completamente cambiado. Cuando se fue su relación con Narumi, su mujer, atravesaba una grave crisis; ahora Shinji es cariñoso y atento con ella y con todo el mundo con el que se encuentra en sus paseos. Al mismo tiempo una familia es brutalmente asesinada en la ciudad. Un periodista empieza a investigar. Fábula de ciencia ficción que se adentra en los entresijos del alma humana a cargo de uno de los directores más importantes del cine japonés de las dos últimas décadas, responsable de títulos como **Viaje hacia la orilla** (2014), **Creepy** (2016) o **Le Secret de la chambre noire** (2016).

## 31

**ASTEARTEA** / MARTES

**17:00**

# Shelter

(2017). Daniel Andrew Wunderer
Austria. 10 min

Basamortu batean ibiltari batek aterpea aurkitu du trailer abandonatu batean. Bertan, mutiko baten gorpua aurkituko du zauri bitxiekin…

Un trotamundos en un páramo busca refugio en un tráiler abandonado, donde descubre el cuerpo de un niño con extrañas heridas…

## LES AFFAMÉS

(2017). Robin Aubert
Kanada / Canadá. 96 min



Quebeceko herri txiki batean, gauzak lehen ez bezalakoak dira. Bertako biztanleetako batzuk gero eta aldaketa gehiago izaten ari dira, eta, horren ondorioz, aurretik izan ohi zirenetik aldentzen: haien gorputzak desegitearekin batera, haragizale porrokatu bihurtu dira. *Affamés*, gosetiak, deitzen diete. Bizirik atera diren gutxi batzuk haiengandik ihes egiten saiatzen ari dira. Zonbiak Quebeceraino iritsi dira *look* errealistaz jantzitako ekoizpen honetan: eszena odoltsuak, zentzugabeko umore tarteak eta azken itxaropen bihurtuko diren antiheroiak ikus daitezke filmean.

En una pequeña localidad quebequesa las cosas han cambiado. Algunos de sus habitantes, cada vez más, no son lo que solían ser. Sus cuerpos se están descomponiendo y manifiestan una gran atracción hacia la carne. Les llaman los *affamés*, los hambrientos. Unos pocos supervivientes tratan de escapar de ellos. Los zombis han llegado hasta Quebec en esta producción de *look* realista con escenas sangrientas, momentos de humor absurdo y antihéroes convertidos en última esperanza.

**19:30**

## JUPITER'S MOON

(*Jupiter holdja*, 2017)
Kornél Mundruczó
Hungaria-Alemania /
Hungría-Alemania. 128 min



Aryan errefuxiatu siriar bat da, bere aitarekin eta beste migratzaile batzuekin batera Hungariako muga zeharkatzen saiatzen ari dena. Poliziak tiro egin diete eta Aryan jo dute. Zauriek, ordea, ez dute hilko; horren ordez, lebitatzeko ahalmen harrigarria emango diote. Errefuxiatuen eremu batean itxita, ihes egitea lortuko du Stern doktorearen laguntzarekin, zeina Aryanek bereganatu berri dituen mirarizko ahalmenei etekina ateratzen saiatuko baiten. Aurretik **White God** (2014) boteretsua zuzendu zuenaren *thriller* honetan nahastu egiten dira naturaz gaindikoa eta tragedia garaikide handienetako bat.

Aryan es un refugiado sirio que junto a su padre y otros migrantes trata de cruzar la frontera húngara. Son disparados por la policía y Aryan recibe varios disparos. Pero las heridas no le matan, sino que sorprendentemente le otorgan el poder de levitar. Encerrado en un campo de refugiados, escapa con la ayuda del doctor Stern, que trata de aprovecharse en beneficio propio de los milagrosos nuevos poderes de Aryan. *Thriller* en el que lo sobrenatural se mezcla con una de las grandes tragedias contemporáneas dirigido por el responsable de la poderosa **White God** (2014).

**22:00**

## The Distant Sea

(2016). Nic Wassell
Erresuma Batua / Reino Unido
15 min

L, kostaldearen higaduraren ikertzaile bat, hondartzako leku bakartu bat ari da esploratzen. Hala, maiteminduta dauden bi neska gazterekin egingo du topo, Sasharekin eta Jorekin, eta oso urruti ez dagoen etxe bitxi batera eramango dute, non are eta bitxiagoa den pertsona bat bizi baiten.

L, una investigadora de la erosión costera, está explorando una zona solitaria de la playa. Se encuentra con dos jóvenes enamoradas, Sasha y Jo, que la llevan a una extraña casa no muy lejana en la que habita una persona aún más extraña.

## THE CRUCIFIXION

(2017). Xavier Gens
AEB / EEUU. 90 min



Egiazko gertaeretan oinarritua, **The Crucifixion** filmak apaiz baten istorioa kontatzen digu. Exorzismo saio bat egiten ari zitzaion moja bat hiltzeagatik Errumanian dago apaiza espetxeratuta. Nicole Rawlins kazetariak ikertzen dihardu jakin nahian burutik gaixo zegoen pertsona bat hil ote zuen edo, aitzitik, akusazioak faltsuak ote diren eta deabru baten presentziaren aurkako borroka bat galdu ote zuen besterik gabe. Hala, baliteke presentzia hori kazetaria bera bizitzen aritzea... Xavier Gens frantsesak zuzendua, generoko azken hamarkadetako klasikoetako batek, alegia –**Frontière(s)** (2007), **The Divide** (2011) edo aurten bertan **Cold Skin** (2017) zuzendu izan ditu–.

Basada en hechos reales, **The Crucifixion** cuenta la historia de un sacerdote que es encarcelado en Rumanía por el asesinato de una monja a la que realizaba un exorcismo. La periodista Nicole Rawlins investiga si el asesinato fue a una persona mentalmente enferma o, por el contrario, las acusaciones son falsas y simplemente perdió la batalla contra una presencia demoniaca. Una presencia que ahora podría estar experimentando ella misma... Dirige el francés Xavier Gens, uno de los clásicos del género de la última década con títulos como **Frontière(s)** (2007), **The Divide** (2011) o este mismo año **La piel fría** (2017).




00:30

## HALLOWEEN GAUA

## Epidemia
(2017). Alejandro Portaz.
Espainia / España. 9 min

Atzerrian den ikasle bat 1994ko Gabonak ospatzera itzultzen denean, kanpoan zenean zerbait kezkagarria gertatu dela konturatuko da.

Cuando una estudiante en el extranjero vuelve para pasar las Navidades de 1994, descubre que algo inquietante ha ocurrido en su ausencia.

## BAD BLACK
(2016). Nabwana I.G.G. Uganda
68 min



Ongietorri Wakaliwood-era, *"da best of da best movies"* ekoizten diren lekura. Duela urte batzuk, Kampalako aldirietan, Ugandan, zinezale eta borroka arteen zale talde batek, Nabwana Isaac Godfrey Geoffrey buru dela, ekintza, kung-fu eta fantasiazko pelikulak artisau erara, eta umore handiz eta batere lotsarik gabe filmatzeari ekin diote aurrekontu barregarriekin. Joan den urtean Texasen, Austingo Fantastic Fest-en publikoaren saria jaso zuen film honetan, Wesley Snipes izeneko getoko gazte batek mediku txepel bat entrenatuko du haren familia salbatzeko.

Bienvenidos a Wakaliwood, donde se producen *"da best of da best movies"*. Desde hace unos años, a las afueras de Kampala, Uganda, un grupo de aficionados al cine y a las artes marciales, encabezados por Nabwana Isaac Godfrey Geoffrey, se dedica a rodar de forma artesanal, con presupuestos irrisorios, películas de acción, kung-fu, fantasía, mucho humor y ninguna vergüenza. En esta película, que obtuvo el pasado año el premio del público en el Fantastic Fest de Austin, Texas, un apocado médico es entrenado por un joven del gueto llamado Wesley Snipes para salvar a su familia.

## HOUSEWIFE
(2017). Can Evrenol
Turkia / Turquía. 82 min



Hollyk zazpi urte zituenean, aita eta ahizpa hil zituen amak. Hogei urte geroago, ezkonduta eta bakarrik, erabat aldatuko da bere bizitza aspaldiko lagun bati esker sekta arraro batekin kontaktuan jartzen denean: Umbrella of Love and Mind. Hala, sektako buru den mentalista batekin harreman nahasi bat hasiko du. **Baskin**en (2006) zuzendaria berriro dugu Astean bere bigarren film luze honekin.

Cuando Holly tenía siete años su madre mató a su padre y a su hermana. Veinte años después, convertida en una mujer casada y con una vida solitaria, su existencia dará un giro cuando, gracias a una vieja amiga, entra en contacto con una extraña secta, Umbrella of Love and Mind, y con su líder, un mentalista con el que inicia una turbia relación. El director de **Baskin** (2006) vuelve a la Semana con su segundo largometraje.

# 1
**ASTEAZKENA /** MIÉRCOLES

17:00

## Clanker Man
(2017). Ben Steiner
Erresuma Batua / Reino Unido
10 min

Errealitatea ez da berez existitzen. Terry Lothian etengabe ari da lanean guztiok emantzat hartzen dugun funtsezko informazioa gorde nahian. Baina orain bere departamentuan murrizketa zorrotzek eragindako kezka sentitzen ari direnean, errealitatearen ehuna baino zerbait gehiago hasiko da askatzen.

La realidad no existe por sí sola. Terry Lothian trabaja incansablemente para conservar los detalles de fondo que todos damos por hechos. Pero ahora que su departamento está sintiendo los recortes, no solo el tejido de la realidad está empezando a desenmarañarse.

## THE ENDLESS
(2017). Aaron Moorhead, Justin Benson
AEB / EEUU. 111 min



Justin eta Aaron anaiek ihes egin zuten hazi izan ziren sektatik. Urte batzuk eta gero, bideo zinta bat jasoko dute haien “familia” izan zen horretatik. Euren artean liskar ugari izan ondoren, bizitza erdia baitaramate leku hura ahazten saiatzen, itzultzea erabakiko dute zer gertatzen ari ote den jakiteko. Bertan direla, azaldu ezin diren hainbat fenomeno gertatzen hasiko dira elkarren segidan, eta dena berriro planteatzera eramango ditu egoera horrek. Justin Benson eta Aaron Moorhead Astera itzuli dira, non aurretik **Resolution** (2012) beren film luzea proiektatu izan zen.

Los hermanos Justin y Aaron se escaparon de niños de la secta donde habían sido criados. Años después reciben una cinta de video procedente de la que fue su “familia”. Tras muchas discusiones entre ellos, ya que llevan media vida intentando olvidar aquel lugar, deciden volver para averiguar qué está sucediendo. Una vez allí comienzan a sucederse diversos fenómenos inexplicables que les hacen replanteárselo todo de nuevo. Justin Benson y Aaron Moorhead vuelven a la Semana, donde se proyectó **Resolution** (2012).

### 19:30

## Frenchies
(2017). Kuan-Fu Lin
Taiwan / Taiwán. 12 min

Estatu Batuak. 1980ko hamarkada. Apartamentuen konplexu zahar batera familia berri bat iritsi da. Oso portaera arraroa dute, zarata susmagarria egiten dute eta haien buruak bulldog frantses batena bezalakoak dira.

Estados Unidos en los 80. A un vetusto complejo de apartamentos llega una nueva familia. Se comportan de manera extraña, hacen un ruido sospechoso y sus cabezas son como las de bulldogs franceses.

## MATAR A DIOS
(2017). Pintó & Caye
Espainia / España. 92 min



Familia bat prestaketa lanetan ari da basoaren erdian dagoen etxe bakartu batean Urtezahar gaua ospatzeko. Afariaren aurretik eskale arraro bat agertuko zaie. Jainkoa dela dio hark eta egunsentian giza arraza akabatuko duela mehatxatu du. Bi pertsona besterik ez dira bizirik irtengo, eta haiek arduratuko dira gizakiak aukeratzeaz. Haien eskuetan dago gizadiaren halabeharra. Munduaren amaierari buruzko komedia beltz honekin estreinatu dira Pintó & Caye film luzeen eremuan.

Una familia se prepara para celebrar el fin de año en una aislada casa en mitad del bosque. Antes de la cena aparece un extraño vagabundo que dice ser Dios y que amenaza con exterminar a la raza humana al amanecer. Solo se salvarán dos personas, y ellos serán los encargados de elegirlos. El destino de la humanidad descansa en sus manos. Pintó & Caye debutan en el largometraje con esta comedia negra sobre el fin del mundo.

### 22:00

## Expire
(2017). Magali Magistry
Frantzia / Francia. 13 min

Laino toxiko batek planeta estaltzen du eta jendea pilatuta bizitzera behartzen du. Baina 15 urte badituzu, Juliettek bezala, kanpoan hasten da benetan bizitza erreala.

Una niebla tóxica cubre el planeta, obligando a la gente a vivir confinada. Pero si tienes 15 años como Juliette, la vida real empieza verdaderamente fuera.

## FELIZ DÍA DE TU MUERTE

(*Happy Death Day*, 2017)
Christopher Landon
AEB / EEUU. 96 min



Goiz batean Tree gaztea unibertsitateko ikaskide baten egoitzan esnatu da haraino nola iritsi den ez dakiela. Bere urtebetetzea da. Jantzi eta bere gelara joango da bere festa prestatzen hasteko. Festa gauean izango da eta hil egingo dute bertan... Hurrengo goizean, ordea, goiz horretako gela berean esnatuko da berriro eta... antza denez berriro hasten da guztia. Christopher Landon da film honen zuzendaria, **Paranormal Activity** sagaren zenbait emanaldiren gidoia idatzitakoa eta haietako bat zuzendu zuena: **Paranormal Activity: The Marked Ones** (2014).

La joven Tree se despierta una mañana en la residencia de un compañero de universidad sin saber cómo ha llegado hasta allí. Es su cumpleaños. Se viste y se dirige a su dormitorio para comenzar a preparar su fiesta, que tendrá lugar por la noche y donde será asesinada... Pero a la mañana siguiente vuelve a despertarse en la misma habitación de esa mañana y... todo parece empezar de nuevo. Dirige Christopher Landon, guionista de varias entregas de la saga **Paranormal Activity** y director de una de ellas: **Paranormal Activity: Los señalados** (2014).

# 2
**OSTEGUNA** / JUEVES

**17:00**

**FILM LABUR ESPAINIARREN MARATOIA**
MARATÓN CORTOS ESPAÑOLES (114 min)

## Bye Bye Baby

(2017). Pablo S. Pastor. 15 min

Gazte bat gertu dago etxean gau lasai bat igarotzeko, film bat lagun bakartzat duela. Lagun baten deia jaso eta gero, dena gaizki irteten ari da, antza. Larritasun eta nahasmen sentsazioa handitzen doa minuturo etxean sortzen ari diren gertakari ulertezinen aurrean, eta galdera bat darabilki buruan: bakarrik al dago benetan?

Una joven se dispone a pasar una noche tranquila en casa con la única compañía de una película. Tras la llamada de una amiga, todo parece ir mal. La sensación de angustia y confusión crece a cada minuto ante los inexplicables sucesos que se encadenan en la casa y una pregunta ronda su mente: ¿está realmente sola?

## Defuncionario

(2017). Wiro Berriatúa. 17 min

Alberto ia hil egin da. Beste “arazo txiki” bat sortu da, ordea. Garaia baino lehen iritsi da administrazioko Linbora eta espediente zenbakia eta memoria ezabatu diote. Eta orain burokraziari, paperei eta funtzionarioei egin behar izango die aurre.

Alberto ha casi-muerto. Pero ha habido otro “problemilla”. Ha llegado al Limbo administrativo antes de lo debido y le han borrado el número de expediente y la memoria. Y ahora tendrá que lidiar con la burocracia, el papeleo y los funcionarios.

## Escarabana

(2017). Sara Casasnovas. 10 min

Gosea, lainoa, ihesa. Bikote bat eternitatean harrapatuta. Amaierarik ez duen bidaia bat naturara bertara, Cadillacak gidatuz eta eguzkitik ihesi.

El hambre, la bruma, la huida. Una pareja atrapada en la eternidad. Un viaje sin fin hacia la propia naturaleza, conduciendo Cadillacs y escapando del sol.

## Etiqueta negra
(2017). David Vergés. 11 min

Maitasun eta mozorroen istorio bat: Erikena, gasolindegi bakartu batean gaueko txandan kobratzaile lanean diharduenarena, eta Álexena, bertatik sarritan pasatu ohi den bezeroarena. Gau honetan zerbait gertatzeko zorian da, biak, beren erara, benetan nortzuk diren jakiteko aukera emango diena.

Historia de amor y máscaras. Cuenta la historia de Erik, un cobrador del turno de noche de una gasolinera solitaria, y Álex, una clienta que pasa por ahí asiduamente. Esta noche algo va a pasar que hará que los dos, a su manera, tengan la oportunidad de descubrir quiénes son en realidad.

## El extraño caso del Dr. Toñito
(2017). José Manuel Serrano Cueto
12 min

Dr. Toñito tipo uzkur bat da eta arrakastatsu izan nahi du. Badu eredu bat jarraitzeko: bere bizilagun Pepe Tito, Granadako ihauterietako konpartsa bateko kidea. Hala, edabe bat asmatuko du haren antza izateko.

El Dr. Toñito es un tipo apocado que desea convertirse en alguien de éxito. Tiene un modelo a seguir: su vecino Pepe Tito, un comparsista del carnaval gaditano, y para parecerse a él idea una pócima.

## Fe
(2017). Juan de Dios Garduño
11 min

Adolfok, herriko apaizak, etsita dagoen familia baten deia jaso du. Haien alaba deabruak hartua dagoela uste dute.

Adolfo, el cura del pueblo, recibe la llamada de una familia desesperada. Creen que su hija está poseída por el demonio.

## RIP
(2017). Pintó & Caye. 16 min

Herri ziztrin batean, emakume bat xehetasun handiz ari da bere senarraren hileta prestatzen. Bere asmoa da dena primeran irtetea, beretzat garrantzi handikoa baita gonbidatuen aurrean ondo geratzea.

En un pueblo de mala muerte, una mujer prepara el funeral de su marido con esmero. Su idea es que todo salga a la perfección, ya que para ella es muy importante quedar bien con los invitados.

## Versus
(2017). Demetrio Elorz. 8 min

Teniseko bi jokalari prestatzen ari dira partida gogor batean lehian aritzeko. Jokoa aurreneko puntuan amaitu da itoka. Ikusleek irabazlea txalotu dute.

Dos jugadores de tenis se preparan para afrontar un intenso partido. El juego concluye precipitadamente en el primer punto. Los espectadores aclaman al ganador.

### 19:30

## A Child Outside
(2017). Panos Eliakopoulos
Grezia / Grecia. 7 min

Ama bat bakarrik… edo ez? Garbitzen, besterik gabe… edo bere oroitzapenak arazten? Lortuko al du amesgaiztotik ihes egitea burutik joan gabe?

Una madre sola… ¿o no? Simplemente lavando… ¿o limpiando sus recuerdos? ¿Escapará de la pesadilla sin perder el juicio?

## BLACK HOLLOW CAGE
(2017). Sadrac González-Perellón
Espainia / España. 105 min



Alice, hamahiru urteko neskatila bat, bere aita Adamekin bizi da basoaren erdian, etxe izugarri handi batean, ama eta bere eskuineko besoaren zati bat trafiko-istripu batean galdu ondoren. Alice bere baitara bilduta dago. Gorroto dio aitari, hari leporatzen baitio istripua, gorroto dio errehabilitazioari eta gorroto dio beso elektroniko berriari, eraman beharrean dagoenari baina ia maneiatzen ez dakienari. Neskatilak lotura estua du Beatricerekin: otso zakur eme bat, lepotik zintzilik daraman itzulpen-gailu elektroniko baten bitartez hitz egiten duena, eta hark “ama” deitzen diona.

Alice, una niña de trece años, vive con su padre, Adam, en una enorme casa en medio del bosque, tras un accidente de tráfico en el cual la niña perdió a su madre y parte de su brazo derecho. Alice está encerrada en sí misma. Odia a su padre, al que culpa del accidente, odia la rehabilitación y odia el nuevo brazo electrónico que tiene que llevar y apenas sabe manejar. La niña tiene un fuerte vínculo con Beatrice, un perro lobo hembra que habla a través de un dispositivo electrónico de traducción que lleva colgado al cuello, a quien llama “mamá”.

22:00

## JOJO'S BIZARRE ADVENTURE: DIAMOND IS UNBREAKABLE

(2017). Takashi Miike
Japonia / Japón. 119 min



© 2017 Jojo's Bizarre Adventure DU Movie Project
© LUCKY LAND COMMUNICATIONS/SHUEISHA

Morioh-n, itsasaldeko hiri pintoresko batean, egunero gertatzen ari dira fenomeno ulertezinak. Bertan bizi da Josuke, JoJo izenez ezaguna: *stand* deritzan ahalmen berezi bat duen ikaslea, bere arbasoetatik heredatua, ukituaz bakarrik zauriak osatu eta hautsitako gauzak berregiteko. JoJo konturatzen denean gertaera arraro horiek bereak bezalako ahalmenak dituzten beste pertsona batzuek eragindakoak direla, esku hartzea erabakiko du bere lagunak eta bere hiria babestu nahian. Takashi Miike-k filmatu zuen Sitgesen Hirohiko Araki-ren *manga* ezagunaren egokitzapen hau.

En Morioh, una pintoresca ciudad junto al mar, suceden todos los días fenómenos inexplicables. Allí vive Josuke, conocido como JoJo, un estudiante que tiene un poder especial llamado *stand* que ha heredado de sus antepasados y que le permite sanar heridas y recomponer objetos rotos solo con tocarlos. Cuando JoJo descubre que los extraños acontecimientos que ocurren allí son provocados por otras personas con sus mismos poderes, tomará cartas en el asunto para proteger a sus amigos y su ciudad. Takashi Miike rodó en Sitges esta adaptación del célebre *manga* de Hirohiko Araki.

## MEATBALL MACHINE KODOKU

(2017). Yoshihiro Nishimura
Japonia / Japón. 100 min



Estralurtar odolzale batzuek, planeta konkistatu nahian, Tokioko auzo bat inbaditu dute. *Cyborgs* direlakoek hiltzaile bihurtuko dituzte bertako biztanleak, eta hala, aurrean jartzen zaien guztia akabatzeari ekingo diote. Zor-kobratzaile txepel bat, *necroborg* horien ahalmenek eragingo ez diotena gaixotasun terminal bat duelako, giza arrazaren azkeneko itxaropen izpia izango da 2005eko originalaren *remake* honetan. Efektu berezien maisu Yoshihiro Nishimura da zuzendaria, generoko zinegile japoniar gailenenekin lan egin izan duena –berak zuzenduak dira Astean proiektatu izan diren **Tokyo Gore Police** (2008) edo **Vampire Girl vs Frankenstein Girl** (2009) filmak–.

Unos sanguinarios extraterrestres que quieren conquistar el planeta invaden un barrio de Tokio. Convierten a sus habitantes en *cyborgs* asesinos que se lanzan a acabar con todo aquel que se ponga por delante. Un apocado cobrador de deudas a quien los poderes de los *necroborgs* no afectan debido a su enfermedad terminal se convierte en la última esperanza de la raza humana en este *remake* del original de 2005 que dirige el maestro de los efectos especiales Yoshihiro Nishimura, que ha trabajado con los cineastas nipones más importantes del género y ha dirigido filmes como **Tokyo Gore Police** (2008) o **Vampire Girl vs Frankenstein Girl** (2009), proyectadas en la Semana.

# 3
**OSTIRALA /** VIERNES

16:30

## LOS RESUCITADOS

(2017). Arturo de Bobadilla
Espainia / España. 70 min



Madril, 1994. Hasia da Arturo de Bobadillaren **Los resucitados** film luzearen filmaketa, Gustavo Adolfo Bécquerren kondairetan inspiratuarena: misterioz jositako proiektu bat, beste askoren artean Santiago Segurak eta Paul Naschyk parte hartu dutena. Pelikula formatu desberdinetan filmatzen da eta 1997an editatu. Batzuek diotenez, urte hartako Beldurrezko Astearen esparruan izandako emanaldi pribatu batean ikusi omen zuten. Handik gutxira, desagertu egingo da aurreneko kopia eta, antza, ezin aurkitu jatorrizko materialak. Bi hamarkada beranduago, agertu egingo da filmaketaren materiala eta berriro editatuko da jatorrizko gidoitik abiatuta.

Madrid, 1994. Comienza el rodaje del largometraje **Los resucitados**, de Arturo de Bobadilla, inspirado en leyendas de Gustavo Adolfo Bécquer, un proyecto plagado de misterios que cuenta con la participación, entre otros muchos, de Santiago Segura y Paul Naschy. La película se rueda en varios formatos y se edita en 1997. Algunas personas dicen que la vieron en un pase privado realizado en el marco de la Semana de Terror de aquel año. Poco después la primera copia desaparece y los materiales originales parecen inencontrables. Dos décadas después el material de rodaje aparece y se edita de nuevo partiendo del guion original.

# USTEKABEKO FILMA
# PELÍCULA SORPRESA

¿ ?

**20:00** — **BUKAERA** / CLAUSURA

## SAW VIII

(*Jigsaw*, 2017)
Michael Spierig, Peter Spierig
AEB / EEUU. 91 min



Jigsaw marka daramaten hilketa batzuen ondoren, duela hamar urte hiltzat emandako gizon baten mamua jazartzen ari dira segurtasun-indarrak. Joko berri bat hasi berri da. Beste mundutik itzuli ote da John Kramer mundu honi gogorarazteko bizitzaren opariagatik eskertuta egon behar lukeela? Edo hiltzaile berri bat ote dabil hirian? **Saw**en sagaren jarraipena Spierig anaien eskutik –**Daybreakers** (2009) eta **Predestination** (2014) filmeen zuzendari– .

Tras una serie de asesinatos que llevan la marca de Jigsaw, las fuerzas del orden se encuentran persiguiendo al fantasma de un hombre dado por muerto hace diez años. Un nuevo juego ha empezado. ¿Ha vuelto desde el más allá John Kramer para recordarle al mundo que debe estar agradecido por el regalo de la vida? ¿O hay un nuevo asesino en la ciudad? La saga de **Saw** continua de la mano de los hermanos Spierig, responsables de **Daybreakers** (2009) y **Predestination** (2014).

**22:30** — **SAIO ESTRA (ABONUTIK KANPO)** / SESIÓN EXTRA (FUERA DE ABONO)

## Film labur irabazleak
## Cortometrajes ganadores

## HOUSE OF THE DISAPPEARED

(2017). Lim Dae-woong
Hego Korea / Corea del Sur
100 min

Ikusi 3. orrialdea

Véase página 3



# TEATRO
# VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Film guztiak jatorrizko bertsioan proiektatuko dira euskarazko azpitituluekin, **ENCUENTROS EN LA TERCERA FASE** (jatorrizko bertsioa gaztelaniazko azpitituluekin), **ERREMENTARI** (euskaraz gaztelaniazko azpitituluekin) eta **LABAN, MAMU TXIKIA** (euskaraz bikoizturik) salbu.
Todas las películas del Teatro Victoria Eugenia se proyectarán en versión original subtitulada en euskera excepto **ENCUENTROS EN LA TERCERA FASE** (versión original subtitulada en castellano), **ERREMENTARI** (versión original en euskera subtitulada en castellano) y **LABAN, MAMU TXIKIA** (doblada al euskera).

## 27
**OSTIRALA** / VIERNES

**21:00** — **EL KLASIKAZO 4K**

### ENCUENTROS EN LA TERCERA FASE
(*Close Encounters of the Third Kind*, 1977). Steven Spielberg
AEB / EEUU. 132 min



**Jaws** (1975) filmarekin munduko hondartza guztiak hustu eta gero, Steven Spielbergek lehen aldiz egingo du sarraldia zientzia fikzioan gizadiaren eta beste planeta batzuetatik etorritako izakien arteko kontaktu posible bati buruzko istorio honekin. Gau batean, Indianako bere etxetik gertu, zeruan objektu hegalari misteriotsu batzuk behatu ditu Roy-k. Harrez geroztik, obsesionatuta bizi da ikusi duena ulertu nahian. Jillian ezagutuko du, gertakari berdinen lekuko izan den emakume bat, eta elkarrekin saiatuko dira haien bizitzak nahasi dituen misterioa argitzen. Aldi berean, nazioarteko zientzialari talde batek objektu hegalari ezezagunen (OHE) agerraldiak ikertzen dihardu. Asteak filmaren estreinaldiaren 40. urteurrena ospatuko du 4K kopia baten proiekzioarekin.

Después de vaciar las playas de todo el mundo con **Tiburón** (1975), Steven Spielberg se adentra por primera vez en la ciencia ficción con esta historia sobre el posible contacto entre la humanidad y seres provenientes de otros planetas Una noche, cerca de su casa en Indiana, Roy observa en el cielo unos misteriosos objetos voladores. Desde entonces vive obsesionado por comprender lo que ha visto. Conoce a Jillian, una mujer que ha sido testigo de los mismos hechos, y juntos intentan encontrar una respuesta al misterio que ha alterado sus vidas. Al mismo tiempo, un grupo de científicos internacionales investiga las apariciones de ovnis. La Semana celebra el 40º aniversario del estreno de la película con la proyección de una copia en 4K.

## 28
**LARUNBATA** / SÁBADO

**12:00** — **HAURRENTZAKO ZINEMA** / CINE INFANTIL

### The Girl & the Cat
(2017). Ervin Han, Bernard Toh
Singapur. 13 min

Amarekin doan neskatxa bat galdu egiten da Singapurreko gaueko azoka batean. Katu batekin topo egiten du, eta hark azokaren bihotzera eramango du, fantasia eta errealitatea nahasten diren leku batera.

Una niña se separa de su madre en un mercado nocturno de Singapur y se encuentra con un gato, que la lleva a las entrañas del lugar, donde la fantasía y la realidad se confunden.

### Where Is My Moon?
(2017). Baek Mi-young
Hego Korea / Corea del Sur. 7 min

Behin baziren esnatu zen arrain bat eta bere ilargian lo hartu ezin zuen haur bat. Haurrak arrainarekin topo egin zuen eta ilargia galdu zuen. Horrela, elkarrekin, ilargia berreskuratzeko abenturan murgiltzea erabaki zuten biek.

Érase una vez un pez que se despierta y un niño que no puede dormir en su propia luna. El niño se encuentra con el pez y pierde la luna. Así que deciden lanzarse a la aventura juntos para recuperarla.

## LABAN, MAMU TXIKIA

(2006). Alicja Jaworski, Karin Nilsson, Lasse Persson, Per Åhlin
Suedia / Suecia. 45 min



Laban, mamu txikia, bere familiarekin bizi da Moringsun gazteluan. Bere aitaren antzera, ingurukoak beldurtu nahian ibiltzen da, baina saiatu arren, ez du lortzen. Gazteluan erregearen familia bizi da. Erregearen seme Michief printzea, Rufus haren txakurrarekin batera, Labanen lagun onenak dira. Mamu txiki protagonistari, Labani, iluntasunak ematen dio beldurra.

Laban, un pequeño fantasma, vive con su familia en el castillo Morningsun. Él desea dar miedo, tal como su padre, pero por más que lo intente nunca lo consigue. En el castillo vive una familia real, y el hijo de los reyes, el príncipe Mischief, junto con su perrito Rufus, son los mejores amigos de Laban. Y lo más importante, el fantasma protagonista tiene miedo de la oscuridad.

**17:00**

## NEAR DARK

(1987). Kathryn Bigelow
AEB / EEUU. 94 min



Gaua da, eta leku bakartu batean Caleb-ek, *cowboy* gazte batek, Mae ezagutu du, herrira iritsi berri den neska bat. Pasieran dabiltzala, koska egingo dio neskak, eta gaueko izaki, banpiro antzeko bat (filmean behin ere ez da hitz hori aipatzen), bihurtuko du Caleb. Hala, Maeren "familiak", herrialde osoan zehar furgonetaz odol bila dabilen talde basatiak, adoptatu egingo du azkenean. Beldurrezko *western* aitzindari eta boteretsu honetan, eremuak hilotzez estaltzen doaz bere garaian Sezesio Gerran borrokan aritutako Jesse, Diamondback errukigabea, Severen motorzale zoratua eta Homer (ustezko) nerabea. Kathryn Bigelow zuzendariak bakarka zuzendu zuen lehen filma da hau, eta istorio honekin banpiroen generoa berpizten saiatu zen.

Una noche cualquiera en mitad de la nada, Caleb, un joven *cowboy*, conoce a Mae, una recién llegada al pueblo. Durante un paseo ella le muerde y le convierte en una criatura de la noche, en una especie de vampiro (la palabra no se pronuncia en la película en ningún momento) que acaba siendo adoptado por la "familia" de ella, un grupo (salvaje) que se desplaza en furgoneta por todo el país en busca de sangre. El antaño combatiente en la guerra de Secesión Jesse, la implacable Diamondback, el enloquecido motorista Severen y el (presunto) adolescente Homer siembran los campos de cadáveres en este pionero y poderoso *western* de terror con el que Kathryn Bigelow intentó resucitar el género de vampiros en su primera película dirigida en solitario.

**19:30**

## BUFFY THE VAMPIRE SLAYER

(1992). Fran Rubel Kuzui
AEB / EEUU. 82 min



Buffy neska ezagun axolagabe bat da. Institutuan ikasten du, animatzailea da eta bizitza atsegina darama, harik eta arrotz batek banpiro ehiztari bihurtzera eta Gaizkiaren zerbitzarietatik gizadia babesteko bere bizitza ematera predestinatuta dagoela esaten dion arte. 1992an zuzendu eta ekoitzi zuten Kuzui senar-emazteek Joss Whedon gaztearen aurreneko gidoi zinematografikoa, eta XXI. mendeko fantasiazko generoko sail arrakastatsuenetako baten hazi bilakatu zen. Whedon berak sortutako eta Kuzui bikoteak ekoitzitako lehenengo emanaldi horren 20. urteurrena beteko da aurten. Kristy Swanson eta Luke Perry dira filmaren protagonistak, Donald Sutherland eta Rutger Hauerrekin batera.

Buffy es una despreocupada y popular joven que estudia en el instituto, ejerce de animadora y tiene una vida apacible hasta que un extraño le dice que está predestinada a convertirse en una cazavampiros y dedicar su vida a proteger a la humanidad de los servidores del Mal. En 1992 el matrimonio Kuzui dirige y produce el primer guion cinematográfico del joven Joss Whedon, que se convertirá en el germen de una de las series de género fantástico más populares del siglo XXI, creada por el propio Whedon y producida por los Kuzui, que este año cumple el 20° aniversario de su primera emisión. Kristy Swanson y Luke Perry, acompañados por Donald Sutherland y Rutger Hauer, protagonizan la película.

22:15

## ERREMENTARI
(2017). Paul Urkijo Alijo
Espainia-Frantzia / España-Francia
95 min

Ikusi 2. orrialdea

Véase página 2

# 29
**IGANDEA /** DOMINGO

17:00

## THE LOVE WITCH
(2016). Anna Biller
AEB / EEUU. 120 min



Elaine sorgin gazte erakargarri bat da. Maitasuna bilatzeko irrikan dago, eta, horretarako, arao harrigarriak esaten eta amodiozko edariak prestatzen aritzen da victoriar estiloko bere apartamentuan. Bere sorginkeriak eraginkorrak izaten hasten direnean, bata bestearen atzetik eroriko dira gizonak bere eraginpean. Egoera bere onetik ateratzen hasiko da, ordea. Neurri gogorrak hartu beharko ditu Elainek, baina egoeraren kontrola galduko du eta ez da hasitakoa eteteko modurik izango. 50eko eta 60ko koloretako *thrillerrei* eta melodramei (Hitchcockenak eta Sirkenak, esaterako) omenaldi egiten die oso *look retro* zainduko film original eta dotore honek, eta umore fin eta ezkutu batez –zuzendariaren betiko bereizgarria– arakatzen ditu emakume baten fantasiak eta nartzisismo amorratuaren ondorioak.

Elaine es una joven y atractiva bruja. Está decidida a encontrar el amor a base de conjuros y pócimas que prepara en su apartamento de estilo victoriano. Sus hechizos funcionan y los hombres comienzan a caer bajo su influjo uno tras otro, pero las cosas se descontrolan. Tendrá que tomar (drásticas) medidas, pero todo se le va de las manos y ya no hay forma de parar lo que ha empezado. Con un cuidadísimo *look retro* que homenajea los *thrillers* y melodramas en color de los años 50 y 60, de Hitchcock a Sirk, esta original y elegante película explora, con un humor sutil y soterrado que nunca la abandona, las fantasías de una mujer y las consecuencias del narcisismo exacerbado.

19:30

## PET SEMATARY
(1989). Mary Lambert
AEB / EEUU. 103 min



Film hau egin zen garaian, Ameriketako Estatu Batuetako zineman Stephen Kingen itzala bereziki nabarmena zen, idazlearen lanean oinarritutako hainbat film arrakastatsu egin baitziren: **Children of the Corn** (1984), **Stand by Me** (1986), **The Running Man** (1987), **Misery** (1990). Stephen Kingek bere nobela egokitu zuen Mary Lambertek zuzendutako film hau egiteko. Besteak beste, Madonnaren garai hartako bideoklip ezagunenetako batzuen eta Espainian filmatutako **Siesta** (1987) film luzearen egilea da Mary Lanbert. Trafiko handiko errepide batetik gertu kokatutako etxe batera joan dira bizitzera senar-emazte dirudun batzuk eta haien bi seme-alabak. Familiaren katua auto batek harrapatuko du eta animalientzako inguruko hilerri batera eramatea erabakiko dute. Inguru hartan diotenez, leku hura indiarren hilobi-lekua izan zen aspaldian, eta bertan hobiratzen den guztiak hartzen du berriro bizitza.

En una época especialmente “kingsiana” del cine estadounidense, con varios títulos de éxito basados en obras suyas –**Los chicos del maíz** (1984), **Cuenta conmigo** (1986), **Perseguido** (1987), **Misery** (1990)–, Stephen King adapta su propia novela en esta película que dirige Mary Lambert, responsable de algunos de los videoclips más célebres de Madonna de la época y del largometraje **Siesta** (1987), rodado en España. Un matrimonio acomodado con dos hijos se instala en una casa situada cerca de una carretera con mucho tráfico. El gato de la familia es atropellado y deciden llevarlo a un cementerio de animales cercano. Se cuenta que aquel era un antiguo lugar de enterramiento indio donde todo lo que se sepulta vuelve a la vida.

# 30
**ASTELEHENA** / LUNES

19:30

## AMERICAN MARY
(2012). Jen Soska, Sylvia Soska
Kanada / Canadá. 102 min



Mary Mason medikuntzako ikasle bat da. Dirua behar duenez, gaueko klub batean hasi da lanean, dantzari. Egun batean, ustekabean ohartuko da askoz ere gehiago irabaz dezakeela kirurgiako sotoetan, ebakuntza estetiko klandestinoen munduan. Bertan, bezeroek gero eta gauza arraroagoak eskatzen dizkiote: beren gorputzak aldatzeko, gorputz-zatiak kentzeko, mutatzeko... Goitik behera aldatuko da Maryren bizitza, ebakuntza berri bakoitzak pauso bat harago joatea eskatuko baitio. *Twisted twins* izenez ezagun diren Jen eta Sylvia Soska bikiak –**Dead Hooker in a Trunk** (2009), **Vendetta** (2015)– unibertso odoltsu eta osasungaitz batean murgildu dira beren bigarren film honetan.

Mary Mason es una estudiante de medicina que, necesitada de dinero, comienza a trabajar como bailarina en un club nocturno. Pero un día descubre accidentalmente que puede ganar mucho más en los sótanos de la cirugía, en el mundo de las operaciones estéticas clandestinas, donde sus clientes le piden cosas cada vez más extrañas, cambiar sus cuerpos, quitarse partes del mismo, mutar... La vida de Mary se verá alterada por completo, porque cada nueva operación supone ir un paso más allá. Las *twisted twins*, las gemelas Jen y Sylvia Soska –**Dead Hooker in a Trunk** (2009), **Vendetta** (2015)–, se adentran en un universo sangriento y malsano en su segunda película.

# 31
**ASTEARTEA** / MARTES

19:30

## A GIRL WALKS HOME ALONE AT NIGHT
(2014). Ana Lily Amirpour
AEB / EEUU. 100 min



Irango Bad City hiria prostitutak, drogazaleak, era guztietako galtzaileak eta arima oinazetsuak bizi diren leku marjinal bat da. Hiri horretan, izaki izugarri bat zelatan ibiltzen da odol bila biztanleen artean. Baina dena aldatuko da mutil batek neska bat ezagutzen duenean. Banpiroen *western* hau *cult movie* bilakatu da: nobela grafiko baten tankerako amodiozko istorioa da, zuri-beltzeko beldurrezko filma. Azken urteotan generoak emandako sorpresa hau Iranen girotuta dago eta Kalifornian filmatu zuten.

En la ciudad iraní de Bad City, lugar marginal donde viven prostitutas, drogadictos, perdedores de todo tipo y almas atormentadas, una aterradora criatura acecha a sus habitantes en busca de sangre. Todo cambia cuando un chico conoce a una chica. *Western* de vampiros convertido en *cult movie*, historia de amor con espíritu de novela gráfica, película de terror en blanco y negro ambientada en Irán y rodada en California convertida en una de las sorpresas del género de los últimos años.

22:00

## THE SLUMBER PARTY MASSACRE
(1982). Amy Jones
AEB / EEUU. 75 min



Trish neska gaztea bakarrik geratu da etxean asteburuan, eta pijama-festa bat antolatu du bere lagunekin (guztiak neskak). Festaren amaiera, ordea, gogorra izango da, ihes egin berria den serieko hiltzaile arriskutsu bat agertuko baita. Zulagailu bat du armatzat hiltzaileak, eta izua zabalduko du auzoan. Rita Mae Brown misteriozko nobelagile emankorraren gidoi batetik (nahiko umoretsua) abiatuta, Amy Jones hasiberriak pantaila handira eraman zuen *slasher* aitzindari hau, eta denborarekin generoko film enblematiko bihurtu da. Film honen ondoren, karrera eklektikoa garatu zuen zinemagileak eta hainbat film zuzendu zituen; besteak beste, **Love Letters** (1983) edo **Maid to Order** (1987). Gidoiak ere idatzi zituen: **Beethoven** (1992) eta **Indecent Proposal** (1987) film arrakastatsuenak, esaterako.

La joven Trish se queda un fin semana sola en casa y organiza con sus amigas una fiesta de pijamas que acaba drásticamente cuando entra en escena un peligroso asesino en serie recién fugado que, armado con un taladro, siembra el pánico en el vecindario. Partiendo de un guion (con bastante humor) de la prolífica escritora de novelas de misterio Rita Mae Brown, la debutante Amy Jones –que posteriormente desarrolló una ecléctica carrera en la que dirigió películas como **Cartas de amor** (1983) o **Su excelencia, la criada** (1987) y escribió los guiones de las exitosas **Beethoven** (1992) y **Una proposición indecente** (1987)– lleva a la pantalla grande este pionero *slasher* convertido con el tiempo en título emblemático del género.

# 1
ASTEAZKENA / MIÉRCOLES

17:00

## ÉVOLUTION

(2015). Lucile Hadžihalilović.
Frantzia-Belgika-Espainia /
Francia-Bélgica-España. 81 min



Nicolasek hamar urte ditu eta bere amarekin bizi da uharte urrun batean, emakumeak eta haurrak soilik bizi diren herri batean. Itsasora bistak dituen ospitale batean, misteriozko tratamendu mediko bat jartzen diete mutikoei. Inork ez du zalantzan jartzen han egiten dutena, baina Nicolasek bai, oso arraroa iruditzen baitzaio guztia; gainera, ama eta gainerako emakumeak gezurretan ari zaizkiolako susmoa du. Protagonistaren aurkikuntza amesgaizto baten hasiera izango da, eta nekez lortuko du esnatzea. **Innocence** (2004) egin zuenetik hamar urte inguru igaro dira dagoeneko, eta hau Lucile Hadžihalilović errealizadore frantsesak zuzendutako bigarren film luzea da, itsasertzean gertatzen den istorio dotore eta asaldatzaile bat.

Nicolas tiene diez años y vive con su madre en una isla remota, en un pueblo habitado solo por mujeres y niños. En un hospital con vistas al mar los chicos son sometidos a un misterioso tratamiento médico. Nadie se pregunta qué es lo que sucede allí salvo él, al que le parece todo muy extraño y siente que su madre y las demás mujeres le mienten. Lo que descubre será el comienzo de una pesadilla de la que será difícil despertar. Más de una década después de **Innocence** (2004), la realizadora francesa Lucile Hadžihalilović dirige su segundo largometraje, una elegante y perturbadora historia que sucede a orillas del mar.

19:30

## ZINEMAPELMAK: POLTERGEIST

Iraupena / Duración: 120 min
Sarrera doan / Entrada libre




**Poltergeist** (1982) film klasikoa proiektatuko dugu eta, DVDetan agertzen diren "film komentatua / zuzendariaren audio-iruzkina" ataletan egiten den antzera, proiekzioari buruz hitz egingo dugu, ikusleen artean eserita. Nor gara aurtengo "zinemapelmak"? **Mikel Pagadi, Angel Aldarondo** eta **Maite Bidarte**. Hirurok gidoilarien, telebistaren eta film laburren munduan jardundakoak gara, eta, batik bat, film honen jarraitzaileak. Ekimen honen lehenengo aldia denez eta 2017an gaudenez, egoki iruditu zaigu **Poltergeist** filma proiektatzea. Hasteko, mamitsua delako, gehienok ikusi dugulako eta hari buruz hitz egiteko alderdi interesgarri asko dituelako; beste alde batetik, ezaguna delako eta Tobe Hooper zuzendariari merezitako omenaldi bat egin nahi diogulako. Ekitaldira filma etxean ikusita joatea gomendatuko genieke ikusleei, guk agian proiekzioa "izorratuko" dugu eta...

Proyectaremos el ya clásico **Poltergeist** (1982) y de manera similar a las opciones "película comentada / autocomentario del director" que aparece en los DVDs, una vez finalizada la proyección charlaremos sobre ella, sentados junto al público. ¿Quiénes somos los *zinemapelmak* de este año? Mikel Pagadi, Angel Aldarondo y Maite Bidarte. Los tres, con experiencia tanto como guionistas como en televisión y en el mundo del cortometraje, son ante todo indiscutibles fans de esta película. Teniendo en cuenta que esta es la primera vez que se lleva a cabo esta iniciativa y que nos encontramos en el 2017, nos ha parecido una buena ocasión para proyectar **Poltergeist**. Por un lado, porque tiene fondo, porque la hemos visto casi todos y porque ofrece muchos aspectos interesantes para comentar, por su popularidad y porque queremos brindarle un merecido homenaje al director Tobe Hooper. Recomendamos al público que vea la película en casa antes de acudir a esta cita, ya que puede que "fastidiemos" la proyección...



# 2
**OSTEGUNA** / JUEVES

**19:30** **The Final Girls present. WE ARE THE WEIRDOS** (82 min)




**The Final Girls** Londresen finkatutako elkarte bat da. Beldurrezko zineman gai feministak aztertzen ditu elkarte horrek, eta generoan emakumeen ikusgarritasuna eta lana aldarrikatzen saiatzen da, bai kameraren aurrean, bai atzean. Hemen, emakumeek zuzendutako askotariko beldurrezko film laburren antologia bat aurkezten dute.

**The Final Girls** es una asociación radicada en Londres que se ocupa de explorar temas feministas en el cine de terror y que intenta reivindicar la representatividad y el trabajo de las mujeres en el género, tanto delante como detrás de las cámaras. Aquí presentan una antología de cortos de terror muy variados dirigidos por mujeres.

## Dead. Tissue. Love
(2017). Natasha Austin-Green.
Erresuma Batua / Reino Unido. 10 min

Neska gazte nekrofilo baten izaerara hurbiltzen den dokumental esperimental eta intimoa.

Documental experimental e íntimo que se acerca a la figura de una joven necrófila.

## Don't Think of A Pink Elephant
(2017). Suraya Raja. Erresuma Batua / Reino Unido. 7 min

Neska nerabe bat egunero ari da borrokan aztoratzen duten pentsamenduetako batzuekin.

Una adolescente lucha diariamente contra algunos pensamientos que la alteran.

## I Should Have Run
(2016). Gabriela Staniszewska
Erresuma Batua / Reino Unido. 4 min

Gau batean emakume batek zerbait arraroa eta beldurgarria topatuko du etxerako bidean.

Una noche una mujer se encuentra con algo extraño y terrorífico en su camino de vuelta a casa.

## I Want You Inside Me
(2016). Alice Shindelar
AEB / EEUU. 13 min

Birjintasuna galtzeko erabakia hartuta, sedukzio bat planeatuko du CJk.

Determinada a perder la virginidad, CJ planea una seducción.

## A Mother of Monsters
(2017). Julia Zanin de Paula
Brasil. 9 min

Neska gazte bat arriskuan dago, zirku bateko *troupe*ak seduzituta.

Una joven seducida por la *troupe* de un circo se encuentra en peligro.

## Pulse
(2017). Becki Pantling
Erresuma Batua / Reino Unido. 6 min

Naturaz gaindiko ipuin morala, *online* zita baten bila dabilen gizon ezkondu bati buruzkoa.

Cuento moral sobrenatural sobre un hombre casado en busca de una cita *online*.

## The Puppet Man
(2017). Jacqueline Castel
AEB / EEUU. 9 min

Hiltzaile batek neska gazte bat eta bere lagunak (guztiak neskak) jazartzen ditu. 80ko hamarkadako beldurrezko zinemari egindako omenaldia da film hau. John Carpenterrek kameo bat egiten du filmean, soinu-bandaren egilea izateaz gain.

Un asesino persigue a una joven y sus amigas en este homenaje al cine de terror de los 80 con banda sonora y cameo de John Carpenter.

## Shortcut
(2016). Prano Bailey-Bond
Erresuma Batua / Reino Unido. 5 min

Odolez blai eginda dagoen karma-ipuin bat.

Un cuento de karma bañado en sangre.

## Sorry, We're Closed
(2016). Alexis Makepeace
Kanada / Canadá. 6 min

Charlottek jakin-minez behatzen dio bere jatetxera gauez etortzen diren gizonen jokabide zakarrari.

Charlotte observa con curiosidad el desagradable comportamiento de los hombres que acuden por la noche a su restaurante.

## Undress Me
(2016). Amelia Moses
Kanada / Canadá. 13 min

Sozialki oso aktiboa ez den unibertsitateko neska batek narriatze fisiko nabaria antzeman du fraternitate bateko festa baten ondoren.

Una universitaria socialmente poco activa comienza a experimentar un evidente deterioro físico tras una fiesta en una fraternidad.

# 3
**OSTIRALA /** VIERNES

**19:30**

**NAZIOARTEKO FILM LABURREN MARATOIA**
MARATÓN CORTOS INTERNACIONALES (172 min)

## Birthday
(2017). Viavattene. Italia. 9 min

Ikusi 4. orrialdea
Véase página 4

## The Boogeys
(2017). Sanjay F. Sharma. Kanada / Canadá. 20 min

Ikusi 4. orrialdea
Véase página 4

## Cautionary Tales
(2016). Us (Chris Barrett & Luke Taylor)
Erresuma Batua / Reino Unido. 8 min

Ikusi 2. orrialdea
Véase página 2

## A Child Outside
(2017). Panos Eliakopoulos. Grezia / Grecia. 7 min

Ikusi 12. orrialdea
Véase página 12

## Clanker Man
(2017). Ben Steiner. Erresuma Batua / Reino Unido. 10 min

Ikusi 9. orrialdea
Véase página 9

## The Distant Sea
(2016). Nic Wassell. Erresuma Batua / Reino Unido. 15 min

Ikusi 8. orrialdea
Véase página 8

## Expire
(2017). Magali Magistry. Frantzia / Francia. 13 min

Ikusi 10. orrialdea
Véase página 10

## Frenchies
(2017). Kuan-Fu Lin. Taiwan / Taiwán. 12 min

Ikusi 10. orrialdea
Véase página 10

## Health, Wealth & Happiness
(2017). Nic Alderton. Erresuma Batua / Reino Unido. 11 min

Ikusi 4. orrialdea
Véase página 4

## Petul
(2017). Charles Cheval. Frantzia / Francia. 16 min

Ikusi 6. orrialdea
Véase página 6

## Un peu après minuit
(2017). Jean-Raymond Garcia, Anne-Marie Puga
Frantzia / Francia. 22 min

Ikusi 3. orrialdea
Véase página 3

## Shelter
(2017). Daniel Andrew Wunderer. Austria. 10 min

Ikusi 7. orrialdea
Véase página 7

## When Demons Die
(2016). Daniel Rübesam. Alemania. 19 min

Ikusi 7. orrialdea
Véase página 7

# C.C. OKENDO K.E.

sarrera doan
entrada libre

**31**
**URRIA /** OCTUBRE

19:00

## UNA VELA PARA EL DIABLO
(1973). Eugenio Martín. Espainia / España. 86 min



60ko urteetako landa munduko Espainiako herri txiki batean, bi ahizpa neskazahar eta puritanok ostatu bat daramate, eta turista gazteak hartzen dituzte bertan. Kosta ahala kosta prestutasuna defendatzearekin obsesionatuta eta fanatismo goibelak gidatua, "lizunkeriatzat" jotzen dutena ezabatzea erabakiko dute.

En un pueblecito de la España rural de los 60 dos hermanas solteronas y puritanas dirigen una posada en la que se hospedan jóvenes turistas. Obsesionadas por defender a toda costa la decencia y guiadas por un turbio fanatismo deciden eliminar lo que consideran "indecente".

**7**
**AZAROA /** NOVIEMBRE

19:00

## EL ESPANTO SURGE DE LA TUMBA
(1972). Carlos Aured. Espainia / España. 86 min



XV. mendearen erdialdera, zaldu frantses bat exekutatu dute egin dituen krimenengatik. Zaldunak, hil aurretik, bere senideez eta borreroez mendekatuko dela hitz eman du. Mende batzuk eta gero, bi ondorengo zuzen, bata zaldun harena eta bestea haren borreroarena, lagun minak dira eta Parisen bizi dira. Aured-en opera prima, Paul Naschyk zuzendua eta protagonizatua.

A mediados del siglo XV, un caballero francés es ejecutado a causa de sus crímenes. Antes de morir, jura vengarse de sus familiares y de sus verdugos. Siglos después, dos descendientes directos, uno de aquel caballero y el otro de su verdugo, son íntimos amigos y viven en París. Ópera prima de Aured escrita y protagonizada por Paul Naschy.

**9**
**AZAROA** / NOVIEMBRE

19:00

## LAS ALEGRES VAMPIRAS DE VÖGEL

(1975). Julio Pérez Tabernero. Espainia / España. 85 min



Vögel herrixkan, Transilvanian, Erik Draculter kondea bizi zen, hango neska gazteen odolaz elikatzea gogoko zuenez tokiko populazioa izututa zeukan banpiroa. Egun batean, nekazariek hari aurre egitea erabaki eta hil egin zuten (edo hala uste zuten). Mende batzuk geroago, bizia hartu du berriro eta egarriz dago. Bere zorionerako, barietate-konpainia bat daraman autobus bat hondatu eta bertan garatuko da.

En la aldea de Vögel, Transilvania, vivía el conde Erik Draculter, un vampiro que mantenía aterrorizada a la población local pues gustaba de alimentarse con la sangre de jóvenes aldeanas. Un día los campesinos deciden enfrentarse a él y lo matan (o eso creen). Siglos después vuelve a la vida y tiene sed. Afortunadamente para él un autobús con una compañía de variedades se estropea y acaba allí.

# KRESALA ZINEKLUBA

**Trueba Zinemak**

**23**
**URRIA** / OCTUBRE

19:30

## LA NOCHE DE LOS MUERTOS VIVIENTES

(*Night of the Living Dead*, 1968).
George A. Romero
AEB / EEUU. 96 min



Sarrera / Entrada: 5 €

Garai guztietako zinemaren klasiko handietako bat, beldurrezko generoan aro berri bati hasiera eman eta azpigenero bati bidea egin ziona: zonbiak, urteak joan urteak etorri, antza denez gero eta jarraitzaile gehiago dituena. Satelite batek sortutako erradiazioek eraginda, hildakoak esnatu eta hilobietatik irteten hasi dira. Hilerri batean hasten da guztia. Bertan, bi anai-arreba erasoko ditu haietako batek. Mutila hil egingo da eta neskak landetxe baterantz ihes egingo du, non bere egoera berean dauden beste batzuk topatuko dituen. Zonbien tropel baten erasoari egin behar izango diote aurre. Romero maisuak film honekin hasi zuen bere ibilbidea; bere garaian ustekabeko arrakasta izan zuen filma dugu, eta bere filmografian zehar beste bost hurbilketa filmatuko zituen zuzendariak.

Uno de los grandes clásicos del cine de todos los tiempos, que inaugura una nueva era en el terror y que alumbra un nuevo subgénero, el de los zombis, que cada año parece más en boga. Las radiaciones producidas por un satélite provocan que los muertos se despierten y comiencen a salir de sus tumbas. Todo empieza en un cementerio, donde dos hermanos son atacados por uno de ellos. Él muere y ella huye hacia una granja, donde se encuentra con otras personas en su misma situación. Deberán enfrentarse al ataque de una horda de zombis. El maestro Romero comienza su carrera con este título que tuvo un éxito inesperado en su día y del que a lo largo de su filmografía rodó otras cinco aproximaciones.

# KONTADORES

sarrera doan
entrada libre

## 10
**AZAROA** / NOVIEMBRE

**18:30**

## CUENTOS DE HALLOWEEN

(*Tales of Halloween*, 2015). Darren Lynn Bousman, Axelle Carolyn, Adam Gierasch, Neil Marshall, John Skipp, Andrew Kasch, Lucky McKee, Mike Mendez, Dave Parker, Ryan Schifrin, Paul Solet. AEB / EEUU. 92 min



Beldurrezko hamar istorio beldurgarri elkarlotu egiten dira Halloween gauean zehar Estatu Batuetako aldirietako auzo batean. Deabruak, estralurtarrak, espektroak eta hiltzaileak aizkora eskuan dutela agertu dira auzokoak beldurrarazteko eta haiei bakean ez uzteko asmoz halako gau berezi batean.

Diez terroríficas historias de terror se interconectan durante la noche de Halloween en un suburbio estadounidense. Demonios, extraterrestres, espectros y asesinos con hacha aparecen para asustar a los vecinos y no dejarles descansar en paz en una noche tan especial.

## 11
**AZAROA** / NOVIEMBRE

**17:30**

## FRIENDS: ABENTURA MUNSTROEN UHARTEAN

(*Friends: Mononokeshima no Naki*, 2011). Takashi Yamazaki. Japonia / Japón. 87 min



Itsasoan barrena, laino artean bilduta, misteriozko uharte bat dago, eta munstroen familia baten bizilekua omen da. Debekatuta dago bertara hurbiltzea. Egun batean, ordea, gizakume bat galdu egingo da eta han bizi diren izaki misteriotsuekin egingo du topo azkenean. Hura iritsi bezain laster zabaldu da izua, munstroak baitira gizakien beldur-ikaraz bizi direnak, azken finean.

Mar adentro, envuelta en la niebla, existe una misteriosa isla que se dice que es el hogar de una familia de monstruos. Está prohibido acercarse a ella. Pero un día un niño humano se pierde y acaba encontrándose cara a cara con las misteriosas criaturas que habitan allí. Su llegada hace cundir el pánico en la isla, porque en realidad son los monstruos los que viven aterrorizados por los humanos.

# BESTE EKITALDIAK
# OTRAS ACTIVIDADES

**25**
**URRIA** / OCTUBRE

## Fanzineen lantegia
## Taller de fanzines

Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegia (Autoedizioa txokoa)
Ubik, biblioteca de creación de Tabakalera (Rincón de la autoedición)
18:00




**Fanzine gudan** parte hartzera animatuko zaituzten *masterclass* bat aurkezten dizuegu. **Alba Feito**k fantasia eta beldurrezko zinemaren barnean aurkitzen ditugun topikoak apurtuko dituen lantegi teoriko-praktikoa proposatzen digu. Horretarako, pertsonai eta argumentu berrien eraikuntzan egingo dugu lan ezohizko erreferenteak berrikusiz eta imajinario berri bat sortuko duen marrazkia erabiliz.

*Masterclass* para animar a la gente a participar en la **Guerra de fanzines**. **Alba Feito** propone un taller teórico-práctico que plantea el derrumbe de tópicos que envuelven a los personajes femeninos en el cine fantástico y de terror más *mainstream*. Para ello, se trabajará la construcción de nuevos personajes y argumentos a través de la revisión de referentes atípicos y el uso del dibujo para la creación de un imaginario.

**26**
**URRIA** / OCTUBRE

## Axelcasas eta Ronquete-k aurkezten dute...
## Axelcasas y Ronquete presentan...
## Clonerama!

Kutxa Kultur Kluba
20:00



Sarrera doan / Entrada libre

Nork ditu gogoan hauek bezalako zinemako klasikoak, **Hardware** (1990), **Alla ricerca dell'impero sepolto** (1987) edo **Contamination** (1980)? Jende gutxik seguruenik. B eta Z serieko klonak baitira, benetako klasiko modernoenak, horien artean **The Terminator** (1984), **Raiders of the Lost Ark** (1981) edo **Alien** (1979) pelikulenak. Azoka txikietako VHS kaxetan eta arima karitatetsuek Youtubera igota bukatu zuten film luzeak.

Bada garaia, ordea, altxor txiki horiek ahanzturatik ateratzekoa! Horrexegatik, *live cinema* ikuskizun bat da **Clonerama** non, satira moduan eta txantxetan, denbora errealean emango dugun zeluloideko altxor kutre horietako bat. Ongi etorriak gure aurreneko... **Cine Clon Komentatua Axelcasas** eta **Ronquete**-rekin saiora!

¿Quién guarda en su recuerdo clásicos del cine como **Hardware, programado para matar** (1990), **El secreto del imperio de los incas** (1987) o **Contaminación: Alien invade la Tierra** (1980)? Probablemente muy poca gente. Porque son clones de serie B y Z de verdaderos clásicos modernos como **Terminator** (1984), **En busca del arca perdida** (1981) o **Alien, el octavo pasajero** (1979). Largometrajes que acabaron en cajas de VHS en mercadillos y subidos a Youtube por almas caritativas.

¡Pero ha llegado el momento de que estos pequeños tesoros salgan del olvido! Por eso, **Clonerama** es un espectáculo de *live cinema* donde en clave de sátira y cachondeo retransmitiremos en tiempo real una de esas cutre-joyas del celuloide. ¡Sean bienvenidas y bienvenidos a nuestra primera sesión de **Cine Clon Comentado** con **Axelcasas** y **Ronquete**!

# 26-5

**URRIA /** OCTUBRE - **AZAROA /** NOVIEMBRE

## Live Painting Kutxa Kultur

Kutxa Kultur Plaza –
Tabakalera 4. Solairua



Urriaren 26tik **Paoletta** artista donostiarrak pintura bat sortuko du zuzenean. Beldurrezko Astearen inaugurazioko gaien ildotik, bere lanaren inspirazioa Theda Bara izango da: zinemaren historiako aurreneko *vamp*tzat hartua eta hamarreko eta hogeiko urteetako zinemaren ikonoa. Bizi ezazu Paolettarekin eta Thedarekin batera artelan bat sortzeko prozesua.

Desde el 26 de octubre la artista donostiarra **Paoletta** creará una pintura en directo. En línea con la temática de la inauguración de la Semana de Terror, su obra se inspirará en la figura de Theda Bara, considerada la primera *vamp* de la historia del cine e icono del cine de los años diez y veinte. Vive junto a Paoletta y Theda el proceso de creación de una obra de arte.

# 28

**URRIA /** OCTUBRE

## Theda's Vamp – Medicine Show

**Bulebarreko kioskoa**
17:00: Tailerrak
18:00: Zuzeneko emanaldiak

**Quiosco del Boulevard**
17:00: Talleres
18:00: Actuaciones en directo

**Super Amara San Martín**
17:00: Theda's Skeleton Show




XX. mendearen egunsentitik denborazko ozeanoak zeharkatuz, **Theda Bara** ikuskizun misteriotsua iritsi da hirira: mitoen eta legenden *show* bat, zuen hiri lirain hau suntsitzen duten gaitzetako bakoitzarentzako behin betiko irtenbidearekin.

Gure zirkuak sendabidea, ukendua eta tratamendu sekretua ekartzen baititu. Eta arima atsekabetzen duen guztiak izango du osabidea. Gaitz orotarako osabide bakar bat saltzen dugu guk. Prezio polita, halako sendabide baten truke...

Eta ez, ez ezazuela pentsa ameskeria makur horietako bat denik, beste asko eta asko bezala. Theda Bararen **Show Medizinalak** benetako hilezkortasunaren sekretua baitu gordeta. Bai, ondo irakurri duzue. Hilezkortasuna. Eta pausu txiki bat eman, besterik ez duzue egin behar...

Zatozte, hurbildu zaitezte gure ikuskizun ilun honetara! Eta egon adi, entzun eta gozatu Thedaren aholku zuhurrak, gure zeremonia-maisu kuttunarenak. Ez da beste aukerarik izango. Antzezpen bakarra hirian!

O, Theda handia! Zinemako mito ahaztua. Lehendabiziko *vampa*, beragandik jaio izan baitira gainerako guztiak. Amaiera goibela duten 43 pelikulako erabateko izarra. Sute baten ondoren errauts bihurtu baitzen zure zeluloide guztia ia...

Arima galduen gure inauteriak, ordea, ez zaitu ahazten eta erakustaldi bikoitz batekin egin nahi dizugu omenaldi:

Cruzando océanos de tiempo desde la alborada del siglo XX, el misterioso espectáculo de **Theda Bara** llega a la ciudad. Un *show* de mito y leyenda con la solución definitiva a todos y cada uno de los males que asolan vuestra bonita ciudad.

Porque nuestro circo trae remedio, ungüento y tratamiento secreto. Y todo lo que atormenta alma y cuerpo, cura tendrá. Una única cura para todo mal es lo que vendemos. No es mal precio, por tamaño remedio...

Y no, no penséis que se trata de una burda fabulación, como tantas otras. Pues el **Show Medicinal** de Theda Bara guarda el secreto de la verdadera inmortalidad. Sí, lo habéis leído bien. Inmortalidad. Y para ello solo tenéis que dar un pequeño paso...

¡Venid, acercáos a nuestro obscuro espectáculo! Y atended con cuidado y deleite los sabios consejos de Theda, nuestra adorada maestra de ceremonias. No habrá más oportunidad. ¡Única representación en la ciudad!

¡Oh, gran Theda!, mito olvidado del cine. Primera *vamp* de la que han nacido todas las demás. Estrella absoluta de 43 películas, con triste desenlace final. Porque tras un incendio casi todo tu celuloide hasta las cenizas ardió...

Pero nuestro carnaval de las almas perdidas no te olvida y te homenajeamos con una doble exhibición:




**Karpak**. 17:00etatik. Tailer banpirikoak familia guztiarentzat. Ikas ezazu aurpegia zurbiltzen Thedaren larruazal kolorea hartu arte, sortu itzazu zure hilezkortasun edabeak eta zeure hilkutxa bera ere nola eraiki esango dizugu, hori bai, poltsiko tamainakoa.

**Eszenatokia.** 18:00etatik. Musika emanaldiak zuzenean, antzerkiarekin nahastuta. Erabateko ikuskizun honetan Thedaren bizitza eta miraria kontatuko dizkizugu. Eta ez ahaztu gure fanzine kolaboratiboa, benetako *vamp* bat izateko errezeta sekretua jasota duena. Besteren artean, Uruguaiko **Ojos del cielo** taldeak joko du, urte batzuk eta gero Astera bueltan datorkiguna.

**Carpas**. Desde las 17:00. Talleres vampíricos para toda la familia. Aprende a palidecer hasta tener el tono de piel Theda, crea tus propias pócimas de inmortalidad e incluso te diremos cómo construir tu propio ataúd, eso sí, tamaño bolsillo.

**Escenario.** Desde las 18:00. Actuaciones musicales en directo mezcladas con teatro. Todo un espectáculo donde narraremos la vida y milagros de Theda. Y no te pierdas nuestro fanzine colaborativo, con la receta secreta para ser una auténtica *vamp*. Entre otros actuará el grupo uruguayo **Ojos del cielo**, que vuelve años después a la Semana.

# 31
**URRIA /** OCTUBRE

## Halloweeneko makilaje tailerra
## Taller de maquillaje de Halloween
FNAC. 18:30



Hurbil zaitez FNACeko Forumera makilaje tailer batean arratsalde izugarri dibertigarri bat pasatzera.

Acércate al Fórum de la FNAC para disfrutar de un taller de maquillaje y pasar una tarde terroríficamente divertida.

# 3
**AZAROA /** NOVIEMBRE

## "Halloween edition" pop elkarraldia
## Quedada pop "Halloween edition"
FNAC. 18:30



Musika korearraren inguruko elkarraldia FNACen. Aldi honetan Halloweenen egongo da girotua. Alde ilunak seduzituko ditu zuen *idol* gogokoenak, banpiroen, armiarma-sareen eta mamuen artean. Lehiaketa eta zozketa izugarrienak izango dituzue bertan.

Una nueva quedada de música coreana en la FNAC. En esta ocasión estará ambientada en Halloween. Vuestros *idols* favoritos se dejarán seducir por el lado oscuro y entre vampiros, telarañas y fantasmas habrá concursos y sorteos de lo más terroríficos.




3000 ale / ejemplares 0,62 € bana / unidad